

## **Diru iturriak**

Gure helburua aplikazio hau pertsona askok deskargatzea da, horrela jatetxeek eta supermerkatukoek ordainduko diguten kantitatea altuagoa izango da. Hau lortzeko, konturatu gara Play Storen kostea duten aplikazioak gutxiago deskargatzen direla, nahiz eta kostu hau txikia izan.

Honengatik, aplikazioak ez du kosturik izango deskargatzen dutenentzat, gure diru sarrera bertan agertzen diren iragarkiak izango dira. Honengatik, prezioen sailkapenaren arabera, **prezio dinamikoa** izango litzateke gurea, merkatu egoeraren arabera aldatuko delako, hau da, aplikazioaren erabiltzaileen kopuruaren arabera.

Ondorioz, gure irabazi iturriak hurrengo biak izango dira:

### **- Supermerkatu eta jatetxeek publizitatearengatik ordainduko digutena:**

Supermerkatu eta jatetxeekin, **negoziazioaren bidez** adostuko dugu prezioa, hau da, gure aplikazioan egongo den publizitate kopuruarengatik eta gure aplikazioari esker lortutako bezero kopuruaren arabera ordainduko digute. Hau da, geroz eta bisita gehiago eduki aplikazioan, gehiago ordainduko digute.

Publizitatea izango litzateke gure diru-sarrera nagusia, geroz eta bezero gehiago lortu gure publizitateari esker orduan eta diru gehiago ordainduko digute jatetxeek. Honenbestez, lehen aipatu dugun bezala, gure prezioak dinamikoak izango dira, merkatuaren egoeraren arabera aldatzen direlako. Publizitatearekin lortutako dirua gure irabazi iturrien zati nagusia izango da.

### **- Play storeko deskargengatik ordainduko digutena:**

Gure gainontzeko irabazi iturriak play storeko deskargetatik lortuko ditugu. Play store edo app storek aplikazio batek deskarga kopuru jakin bat gainditzen duenean, ordaindu egiten zaio. Irabazi iturri hau ez da nagusia izango.